GEDAR
LANGILE KAZETA

LANGILE KONTROLAREN AUZIAREN INGURUKO ZAZPI TESI

Raniero Panzieri

JATORRIZKO TESTUA: SIETE TESIS SOBRE LA CUESTIÓN DEL PODER OBRERO

IDAZLEA: RANIERO PANZIERI (1921-1964)

DATA: 1958

GAIAK: LANGILE KONTROLA, LANGILE BOTEREA

ITZULPENA: Aitor Martinez, GEDAR LANGILE KAZETArentzat

Kapitalismotik sozialismorako igarotzearen arazoaren inguruan

Langile mugimenduan eztabaida luzea egon da sozialismora igarotzeko formen eta denboren arazoari buruz. Joera batek, hainbat modutara aurkeztu dena, prozesu horren denborak eskematizatzeko gai izan dela uste izan du, sozialismoaren eraikuntzak, beti eta edozein kasutan, demokrazia burgesa eraikitzeko "fasearen" aurretik egon beharko balu bezala. Honela, proletalgoari esleituko zitzaion, burgesiak oraindik bere iraultza egin gabe zuen tokietan, bere borroka helburu oso mugatu batekin gidatzeko zeregina: amaitutako gizarte burges baten ekoizpen moduak eta forma politikoak eraikitzea edo eraikuntza hori erraztea. Ikusmolde hori eskematikoki defini daiteke, abstraktuan aplikatu nahi delako, eta errealitate historiko bati erreferentziarik egin gabe, eredu aurrefabrikatu gisa. Izan ere, egia bada ere erakunde politikoen errealitatea, garai guztietan, errealitate ekonomikoari dagokiola, akats bat da pentsatzea errealitate ekonomikoa (ekoizpen-indarrak eta ekoizteko modua) mailakatua, erregularra, aurreikusteko modukoa eta bata bestearekiko desberdinak diren elkarren segidako fase zehatzetan banatutako lerro baten arabera garatzen dela. Nahikoa da, akats horren izaera ulertzeko, adibide historiko batzuen inguruan hausnartzearekin. Horrela, joan den mendearen hasieran, aurrerapen teknikoak (ehungailu mekanikoaren eta lurrun-makinaren asmakuntzak) ekoizpenean kalitate jauzia eragin zuen (industria-iraultza), oraindik ere ekoizpen-modu berri eta zaharrekin batera indarrean jarraitzen duena; eta, ekonomiaren aldetik bilakaera txikiena izan zuten herrialdeetan, borroka politikoa nahiko konplexua izan zen. Alde batetik, hondar feudalen erresistentzia egon zen, eta, bestetik, burgesia industrialaren baieztapena; eta, azkenik, klase berri baten agerpena, proletalgo industriala.

Tsarraren autokraziaren eta sistema kapitalista-feudal handiaren erorketatik, langile mugimendu marxistaren zati batek, lehenago aipatu dugun akatsean eroriz, errusiar proletalgoak burgesiarekin aliatu behar zuela babestu zuen, iraultzaren "bigarren etapa" (demokrazia burgesa) burutzeko. Tesi hau, jakingo den bezala, Leninek eta errusiar langile mugimenduaren gehiengoak arbuiatu zuten; sistema zaharraren erabateko erorketaren aurrean, mantentzen zen protagonista eraginkor bakarra proletalgoa zen, eta bere arazoa ez zen burgesiaren erakundeak sortzea, baizik eta bere demokraziaren, demokrazia sozialistaren, erakundeak eraikitzea. Txinan, 1924 eta 1928 artean, alderdi komunistan nagusi izan zen klase mugimendua Chang-Kai-Schek-en Kuomintang-a, Mantxu dinastia eta sistema feudala erori ondoren, "Bigarren etapa" (demokrazia burgesa) gauzatzen laguntzeko, baldintzarik gabe sostengatzera bideratu nahi zutenen oposizioa: hori guztia klase “nazional” gisa hartu zitekeen burgesia baten existentzia eza, eta herrialde horretako nekazal masa handiak soilik bere emantzipazioaren alde, eta ez eskema abstraktu eta ulertezinen alde, borrokatu zezakeela kontuan ez hartzeagatik.

Gogoeta horiek ez daramate, noski, boluntarismo intelektual iraultzaile bat gorestera (eta iraultza abangoardiako talde baten borondate-ekintza baten emaitza izan daitekeela baieztatzera), baizik eta ulertaraztera, ezer baino lehen, indar politiko bakoitzak, eredu aurrefabrikatuak jarraitu beharrean, errealitatearen kontzientzia hartu beharko lukeela, beti konplexua eta espezifikoa dena. Sozialdemokraziak, bere forma guztietan, bere oportunismoa

ezkutatu eta ideologikoki justifikatu nahian, sistematikoki nahasten ditu mahai gainean dauden kartak, eta ezker iraultzailearen posizio kontsekuente guztiak intelektualismo boluntaristara murrizten ditu. Esperientzia sozialdemokrataren sustantzia historikoa honetan datza: maximalismoaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta, burgesia sostengatzeko edo, bestela, demokrazia burgesaren eraikuntzan bera ordezkatzeko zeregina esleitzen dio proletalgoari; horrekin ukatu egiten ditu proletalgoaren zereginak eta autonomia iraultzailea, bigarren mailako indarraren papera esleituz.

Gaur egungo Italiako gizartean, funtsezko datua da burgesia ez dela izan, ez dela, ezin dela izan klase "nazionala"; gizarte nazional osoaren garapena, nahiz eta aldi baterako izan, ziurtatzeko gai den klasea (Ingalaterran eta Frantzian gertatu den bezala). Burgesia italiarra oinarri korporatibo eta parasitarioetan oinarrituta sortu da, hau da: 1) merkatu sasi-kolonial (Mezzogiorno) baten ustiapenean oinarritutako isolatutako sektore industrialak sortuz, merkatu nazionalik eratu gabe; 2) Estatuaren bitartez babes etengabea eta sostengu aktiboa emanez; 3) feudalismoaren hondarrekin aliatuz (Hegoaldeko nekazaritza-blokea). Faxismoa oreka kontraesankor horren eta burgesiaren forma horretako nagusitasunaren adierazpen sutsua izan da: zailtasunetan dagoen industria pribatuaren (IRI) aldeko estatu totalitarioaren esku-hartzearen bidez, industria-sektore jakin batzuk egitura monopoliko boteretsu bilakatzea ahalik eta gehien erraztu da (Fiat, Montecatino, Edison, etab.). Faxismoa erori ondoren, monopolioek, Ipar Amerikako industria handiarekiko harremanak eta harekiko mendekotasuna areagotzean, beren politika antinazional zaharraren jarraipena aurkitu dute (Italiako industria handi guztiak daude, modu batean edo bestean, nazioarteko monopolio handiekin kartelizatuta; besteak beste, liga horiek ebidentzia handienarekin agertu dira Fiat, Edison eta Montecatinok petrolioaren kartel internazionalaren konpainia sostengatu dutenean: eta, oro har, zentro-eskuineko alderdien atlantismoa aipatutako mendekotasun-ligen adierazpena da. Marshall plana, inperialismo amerikarraren adierazpena, Alderdi politikoek baino lehen onartu dute Italiako monopolioek).

Hala, eremu monopolikoen ondoan depresio eta atzerapen sakoneko eremu handiak dauden egoera baieztatu da (mendiko eta muinoetako eremu asko, Paduako delta eta, oro har, Mezzogionoa eta uharteak); izugarri handitzen da gizarte-geruzen arteko aldea, eskualdetik eskualdera, eta industria-ekoizpenaren ohiko desorekak areagotzen dira: botila-lepo monopolistak handitzen dira (mugak eta distortsioak, monopolioen politikaren boterea ekoizpen indarren garapen oso eta orekatuari kontrajartzen zaizkie); gure ekonomiaren elementu iraunkor bihurtzen den desokupazio masiboa erregistratzen da; gure egitura ekonomiko-sozialaren arazo handienaren termino tradizionalak larriagotzen dira (hegoaldeko auzia). Neurri horretan, akats larria litzateke, azkeneko urtetan egin den bezala, datu horien existentzia alde batera uztea. Zalantzarik gabe, batez ere 1951-1952tik aurrera, sektore batzuetan, kapitalismo italiarrak nazioarteko aldeko egoera eta aurrerapen teknologiko handia aprobetxatu ahal izan du: horrela, hedapen-fase batera iritsi da (ekoizpenaren handitze azkarra, krediturren handitzea, kapitalaren metaketa azkarra eta kapital finkoaren handitze intentsua), non, monopolioen kontrolpean garatuz, oraindik ere bere eremura mugatuta egon

den, eta, ondorioz, italiar ekonomiaren funtsezko desoreken larritzea eragin duen. Deskribatu ditugun depresio eta krisi esparru zabalek determinatutako egoera kontraesankorra, hobetzera ez eta larriagotzera zuzenduta dago, dela nazioarteko egoeraren balizko narriaduragatik, dela desokupazio teknologikoaren balizko hazkuntzagatik, dela Europako Merkatu Bateratuaren ondorio negatiboengatik, dela, azken finean, Italiako barne-merkatuaren ezaugarriek (haren mugak, pobreziak) ez dutelako finkatutako, eta eremu monopolistan ondoren finkatzen doan, ekoizpen gaitasun eta gaitasun teknologikoarentzat irteera eremu egokirik eskaintzen.

Mota honetako analisi bat ez doa zuzenduta eta ez du balio kapitalismoaren krisi "katastrofiko" baten perspektiba kontsideratzeko, hau profezien eremuan mugitzen den polemika baten parte da: eta termino hauetan klase mugimendua geldiarazteko eta esterilizatzeko bakarrik balioko luke. Azterketa horietatik ondorioztatzen den bakarra da baldintza erreal jakin batzuk daudela eta baldintza horietan garapen joera inplizitua dagoela; baldintza eta joera horien eremuan langile-mugimenduak ikasi behar duen ondorioa da. Gogoeta horien argitan, guztiz abstraktuak eta irrealak agertzen dira (bereziki Italian) tesi hauek: a) klase-mugimenduak, funtsean, demokrazia burges osoko erregimen baten eraikuntzan klase kapitalistari (edo talde burges jakin batzuei) babesa ematera mugatu behar du; b) mugimenduak, funtsean, klase kapitalistari eutsi behar dio eta demokrazia burgesaren erregimen bat eraikitzeko zeregina bere gain hartu behar du.

Aitzitik, gaur egun Italiako gizartea kaltetzen duten kontraesanek, monopolioek hartu duten eta hartzeko joera duten pisuak, garapen teknologikoaren eta ekoizpen harreman kapitalisten arteko kontraesanak, burgesiak klase nazional gisa duen ahuleziak, langile mugimendua, oro har, askotariko zereginak egitera eramaten dute; aldi berean, eduki sozialista duten erreformen alde borrokatzera. Politikari dagokionez, horrek esan nahi du Italian garapen demokratikoaren indar gidaria langile klasea dela, eta aliantza-sistema eraginkor bakarra haren zuzendaritzapean egin daitekeela, intelektualekin, nekazariekin, ekoizpen burges txiki eta ertaineko taldeekin. Hori da baldintza eta perspektiba errealei dagokien aliantza-sistema eta zuzendaritza mota.

Sozialismorako bide demokratikoa langile demokraziaren bidea da.

Dedukzio faltsu bat da, Italiako egoeraren analisi oker batetik eta PCUSen XX. kongresuko tesiekin erregistratutako aldaketaren interpretazio sinplista batetik eratortzen dena, baieztatzea sozialismorako italiar bidea, demokratikoa eta baketsua, sozialismorako bide “parlamentario” batekin bat datorrela. Izan ere, bidezkoa da sozialismoaren bidearen izaera demokratikoaren baieztapena, sozialismora igarotzea isolatutako gutxiengo batek, baldintza politiko eta ekonomikoak heldu gabe, egindako borondate iraultzailearen egintza bat dela dioten ikuskera zahar guztiak ezeztatu beharko liratekeenaren zentzuan; horrela, baztertu egin behar da sozialismora igarotzea kapitalismoaren "hondamendia" automatikoki egiaztatzera

lotzen duen ikuskera. Baina ezin da bide demokratikoa beti eta nahitaez baketsua den bide batera murriztu, nahiz eta herrialde jakin batean sozialismorako baldintzak helduta egon eta haren indarrak adostasunaren gehiengoa lortu, oraindik ere klase kapitalistaren erresistentziak eta indarkeriarako bere baliabideak lapurreta armatura eta indarkeria proletarioaren beharrera eraman baitezakete.

Oraindik ere badago Italian sozialismoarentzat ikuspegi demokratiko eta baketsu bat. Baina sozialismorako igarobide baketsuaren tresna esklusiboa (edo tresna substantzial edo bereizgarri gisa ere bai) parlamentuarekin identifikatzen duenak, bide demokratiko eta baketsuaren proposamena testuinguru erreal orotatik ateratzen du. Horrela, adierazpen burges zaharrak berpiztu egiten dira: Estatu ordezkatzaile burgesa aurkezten dutenak, ez klase-Estatu bat bezala, klaseen gainetik dagoen Estatu bat bezala baizik; Estatu horretan, parlamentua bertatik kanpo garatu eta zehazten diren klaseen arteko indar-harremanak berretsi eta erregistratzen diren egoitza baino ez da, ekonomia benetako harremanak sortzen diren eta boterearen benetako iturria aurkitzen den esfera delarik.

Bidezkoa da esatea, aitzitik, erakunde parlamentarioak ere erabiltzea klase-mugimenduari eskaintzen zaion zeregin garrantzitsuenetako bat dela, eta erakunde horiek berak eraldatzaileak izan daitezkeela (behetik langile mugimenduak bere erakunde berrien bidez eragindako depresioagatik), aldi berean eskubide politiko eta ekonomiko hutsak ordezkatzen dituen egoitza izateko.

Proletalgoak bere burua instituzioak eraikiz hezten du.

Oro har, sozialismorako bidea demokratikotzat jotzen denean, eta trantsizio baketsuaren ikuspegia ahalik eta gehien bermatu nahi denean, honako kontzeptu hau baieztatzen da, funtsean eta ondorioz: borroka politikoaren metodoetan jarraikortasuna dagoela iraultza-jauziaren aurretik, bitartean eta ondoren, eta, beraz, botere proletarioaren instituzioak ez direla iraultza-jauziaren ondoren sortu behar, baizik eta boterearen aldeko langile mugimenduaren borroka ororen garapenean. Erakunde horiek esparru ekonomikoan sortu behar dira, hor baitago boterearen iturria, eta, horrela, gizakia herritar gisa ez ezik ekoizle gisa ere ordezkatu behar dute: eta erakunde horietan zehazten diren eskubideak eskubide politiko eta ekonomikoak izan behar dira aldi berean. Klase mugimenduaren benetako indarra boterearen kuotaren arabera eta ekoizpenaren egituraren barnean aginte funtzioa betetzeko gaitasunaren arabera neurtzen da. Instituzioak demokrazia proletariotik bereizten dituen distantzia eta klaseetan banatutako gizarte burgesa eta klaserik gabeko gizarte sozialista bereizten dituen distantzia kualitatiboki berdinak dira. Horregatik, baztertu egin behar da jatorri iluminista inozoa duen kontzepzioa, oro har proletalgoa boterean "trebatu" nahi duena, bere erakundeen eraikuntza zehatza alde batera utzita. Horrela, proletalgoaren prestaketa subjektiboa aipatzen da, proletalgoaren "heziketa" (nori egokituko litzaioke hezitzaile

papera?); baina denek dakite uretara sartzen denak bakarrik ikasten duela igeri egiten (eta horregatik, "hezitzaile" iluminatua uretara sartuz hasi behar dela eskatu behar da).

Gauza hauek ez dira benetan berriak, langile mugimenduaren eta marxismoaren esperientzia historikoa dira, 1917ko Sobietetatik Turingo mugimendura, fabrika kontseiluetatik, Poloniako eta Jugoslaviako langile kontseiluetara, XX. kongresuko tesien ondorengo garapena, gure begien aurrean gorputza hartuz doazenak. Alferrikakoagoa izan beharko luke alderdi sozialistan gai hau gogoratzeak, azken urteotan Italiako langile mugimenduari bere ekarpenik originalena eman diona.

Langile kontrolaren egungo baldintzei buruz.

Gaur egun, langileen (langileen eta teknikarien) kontrolaren aldarrikapena ez dago azaldutako arrazoiekin bakarrik lotuta, baizik eta aldarrikapen hori egungo gai bihurtzen duten eta klase-mugimenduaren borrokaren erdigunean jartzen duten baldintza berri batzuekin lotzen da: a) Baldintza horietako lehena fabrika modernoaren garapenetik abiatuta eratzen da. Eremu horretan jaiotzen da gaur egungo monopolioaren praktika eta ideologia (giza harremanak, lanaren antolaketa zientifikoa, etab.), langilea modu integralean –arima eta gorputza- bere nagusiarekiko menderatzen saiatzen direnak, oro har, ezjakina den makina handi baten engranajeko pieza txiki batera murriztuz. Langilearen beraren erabateko mendetasun-prozesu horrekin hausteko modu bakarra da, langilearen beraren aldetik, egoeraren kontzientzia hartzea, enpresa-ekoizpen terminoetan; eta patronalaren marka den "enpresa-demokrazia" eta giza harremanen mistifikazioari enpresa osoaren baitako langilearen eginkizun kontzientearen papera kontrajartzea: langile-demokraziaren aldarrikapena.

b) Estatu burgesaren botere politikoaren organoak beti klase kapitalistaren "negozio-batzordea" izan badira ere, gaur egun iraganean baino handiagoa den Estatuaren eta monopolio handien arteko adostasun baten aurrean aurkitzen gara: dela monopolioa, bere barne-logikari jarraituz, zuzeneko kontrol handiago bat hartzera bideratua delako, dela monopolioaren eragiketa ekonomikoek (eta, zorionez, zentzu horretan, ilusio liberalak porrotean daude) Estatuaren laguntza eta esku-hartzea gero eta gehiago eskatzen dutelako. Horrela da, ekonomiaren indarrek beren funtzio politiko zuzenak hedatzen dituztelako (eta zuzenbide Estatuaren fikzioaren barruan klase Estatuaren funtzio erreal eta zuzenak hazten direlako), langile mugimenduak, aurkariaren lezioa ikasiz, borrokaren erdigunea gero eta gehiago botere errealaren eremura eraman behar duela. Eta, arrazoi horregatik, kontrolaren aldeko klase mugimenduaren borroka ezin da enpresa isolatuaren esparruan agortu, baizik eta adar osora, fronte produktibo osora, hedatu eta zabaldu behar da. Langileen kontrola enpresa bakar batera mugatzen den gauza gisa ulertzeak ez du esan nahi soilik kontrolaren aldarrikapena "mugatzea", baizik eta benetako esanahia kentzea eta korporazio-mailara degeneratzea.

C) Hona hemen azken baldintza berri bat, langileen kontrolaren aldarrikapenaren erroan aurkitzen dena. Kapitalismo modernoaren garapenak, alde batetik, eta, bestetik, munduko indar sozialisten garapena eta boterearen problematika larriak, zeina indarrez gailendu baita klasearen mugimenduak bere iraultza egin duen herrialdeetan, agerian uzten dute zein garrantzitsua den gaur egun proletalgoaren autonomia iraultzailearen defentsa eta bermea, dela erreformismoaren forma berrien aurka, dela boterearen burokratizazioaren aurka, hau da, mendekotasun erreformistaren aurka eta gida kontzepzioen kontra (alderdi gidaria, estatu gidaria).

Egoera honetan, proletalgoaren autonomia iraultzailearen defentsa, boterea konkistatu aurretik eta ondoren, demokrazia sozialistaren erakundeak behetik sortzean kontzentratzen da. Eta formazio politikoaren alderdiari klase mugimenduaren tresna funtzioa bueltatzean. (tresna, hau da, ez gida paternalista bat, baizik eta klase batasuna egituratzen duten erakundeen sustapen eta sostenguarena). Alderdi Sozialistak Italian duen autonomiaren balioa bera honetan datza: ez klase mugimenduaren zatiketa aurreratu edo iragartzean, ez "gida" bat beste "gida" bati kontrajartzean, baizik eta langile mugimenduaren barnean kanpokoa, burokratikoa eta paternalista den edozein zuzendaritzarekiko autonomia bermatzean.

Aurrekoa baieztatzeak ez du esan nahi, benetan, boterearen kontua ahazten denik, sozialismoa eraikitzeko funtsezko baldintza dena: baina izaera sozialista, berak oinarri duen langile-demokraziak determinatzen du, eta ezin da inprobisatu ekoizpen-harremanetan iraultza egin eta biharamunean. Eta hau da sozialismo burokratikoaren (estalinismoa) ikuspegia gezurtatzeko modu ez erreformista eta serio bakarra.

"Klase batasunaren" zentzua borroka partzialen eta helburu orokorren arteko erlazioaren auzia da.

Langileen kontrola aldarrikatzeak, horrek dakartzan arazoek, horrekin lotutako kontsiderazio teorikoek, ezinbestean, masen batasuna eskatzen dute, eta kontrolaren tesia parodia zeken batera murriztuko lukeen alderdi-ikuskera zurrun oro arbuiatzea. Ez dago langileen kontrolik enpresa bereko, adar bereko, fronte produktibo osoko langile guztien ekintza batasunik gabe: mitologikoa ez den unitate bat, ezta alderdi baten propagandaren apaingarri hutsa ere, baizik eta benetan behetik sortzen den batasun bat, langileen parte bat ekoizpen prozesuan duen funtzioaz jabetzea, botere berri baten instituzio unitarioen bat-etortzearen sorrera. Horregatik, baztertu egin behar da, esparru horretan, langileen borroka alderdi bat edo estrategia klandestino bat indartzeko tresna hutsera murriztea. Aldarrikapenak eta berehalako borroka partzialak helburu orokorrekin nola lotzen eta bateratzen diren planteatzen duen auzia, luze eztabaidatutakoa, borroken eta haien izaeraren jarraikortasuna baieztatuz ebazten da, hain zuzen ere. Izan ere, harreman hori eta harmonizazio hori ezinezkoak dira, eta nahaspila ideologiko bat dira, baldin eta, egun batean, gizakiaren ametsa koroatzeko, egunsenti miragarri bat bezala iritsiko den sozialismoaren erresuma bat, misteriotsua eta oraingoz

ezagutezina, dagoenaren ideiak irauten badu. Sozialismoaren ideala gizarte kapitalistarekin sakonki kontrastatzen duen eta berarekin kontziliatzeko aukerarik ematen ez duen ideal bat da, baina egunez egun biziarazi behar den ideal bat da, borrokan uneoro konkistatu behar dena; borroka bakoitzak behetik jaiotako instituzioak helarazteko eta aurrera egiteko balio duen neurrian jaio eta garatzen dena.

Klase mugimendua eta garapen ekonomikoa.

Langileen kontrolean eta masa-borrokaren batasunean oinarritutako ikuskera batek ikuspegi katastrofista batean (kapitalismoaren erorketa automatikoa) oinarrituta dagoen jarrera edo posizio oro arbuiatzea dakar atzetik, eta garapen ekonomikoko politika bati erabateko eta baldintzarik gabeko atxikimendua ematea. Baina garapen ekonomikoko politika hori ez da egokitzapen bat, garapen kapitalistaren zuzenketa bat, eta ez da Estatu Burgesari proposatutako programazio abstraktu bat; hura masen borrokan gauzatzen da, eta egitura kapitalista apurtu eta hortik bultzada berriak hartzen dituen neurrian zehazten da. Alde horretatik, esaten da proletalgoaren borrokak botere-kuota berriak egunez egun eskuratzeko balio duela, ez dena ulertu behar proletalgoak egunero botere burgesaren (edo botere burgesaren partaidetza) zatiak eskuratzearen zentzuan, baizik eta egunero botere burgesari zuzenean behetik gora eta ordezkaritzarik gabe sortutako botere berri baten zalantza egitea, baieztatzea eta eratzea kontrajartzen diola.

Langile klaseak, kontrolaren aldeko borrokaren bidez politika ekonomiko berri baten subjektu aktibo bihurtzen den aldi berean, bere kabuz bere gain hartzen du garapen ekonomiko orekatu baten ardura, monopolioen botereari eta haren ondorioei aurre egiteko gai dena: eskualdeen arteko desorekak, estratuen arteko desorekak eta adarraren artekoak. Horregatik, enpresa publikoaren egungo funtzioa irauliz, monopolioei eusteko eta horiek babesteko elementua izatetik, Mezzogiornoaren eta deprimitutako eremuen industrializazioaren zuzeneko tresnan bihurtzen du. Praktikan, horrek garapen ekonomikoaren politika monopolioekiko kontraste latzean jartzen du; kontraste hori, nolanahi ere, gatazka gisa aurkezten da sektore publikoaren (enpresa txiki eta ertainekin aliatua) eta enpresa pribatu handien artean. Nabarmentzen da, halaber, langileen kontrola aldarrikatzen duen mugimenduak izaera unitarioa duela, borrokaren planoan jaio eta garatzen dela. Gure herrialdeko klase-borrokaren egoera zehatzean, kontrola ez da agertzen aldarrikapen generiko, programatiko, gisa, ezta, are gutxiago, legebiltzarrari egindako legegintza-eskaera gisa ere: mota horretako kontsignek eta formulek kontrolaren arazoa desnaturalizatu baino ez lukete egingo, kolaborazionismo-forma larbatu edo ireki batera murriztuz gainera, edo paternalismo parlamentario gaixoti baten koadrora lotuz. Horrekin ez da esan nahi langileen kontrolari buruzko lege-formulazio bat baztertu behar denik, baizik eta ezin dela paternalismoz goitik ezarri, ezta soilik parlamentu-borroka generikoaren bidez konkistatu ere; eremu horretan, parlamentuak eremu ekonomikoan gertatu den borroka (funtsean, langile klasearena) baten emaitza erregistratu eta islatu besterik ezin du egin. Kontrolaren auziak aurrera egiten du langileak, egitura

produktiboan, beren beharraz eta errealitate produktiboaz kontzientzia hartu eta horren alde borrokatzen diren neurrian. Argi dago jada esandako gauzengatik ez dagoela alderik enpresa pribatuaren eta estatuko enpresaren artean gai honi dagokionez; kontrolaren aldarrikapenak borroka-plano berean jartzen ditu bi sektoreak.

Bestalde, kontrolaren aldarrikapena ez da iraganaren berpizte erromantikoa, inoiz ez dena forma berdinetan onartzen, eta ezin da organo sindikal jakin batzuen errebindikazio-funtzioekin nahastu (eta, beraz, ezin da nahastu barne-batzordeen boterea handitzearekin): eta azken hori egia da, nahiz eta langileek, leku askotan, kontrol-eskaerari forma hori ematen dioten, barne-batzordeek langileen benetako batasunaren sinbolo gisa iraun dutelako.

Beraz, aurre hartze utopiko oro saihestu behar da, eta azpimarratu behar da kontrol-moduak ez dituela "espezialisten" batzorde batek zehaztu behar, baizik eta langileen esperientzia zehatzetik soilik sortzen direla. Zentzu horretan, langileen sektore jakin batzuetatik datozen hiru ohar seinalatzen dira, eta horietako lehena "ekoizpen-batzordeari" dagokio, kontrolaren aldeko mugimenduari hasiera eman diezaiokeen forma zehatz gisa. Bigarrena, kontrol-auzia fabrikako langileen kontratuzko boterea eta askatasuna birkonkistatzeko borroka orokorraren erdigunean jartzeko eskaerari buruzkoa da, eta, horrela, adibidez, eskaera hori kontzentrazioak kontrolatu eta diskriminazioak eragotziko dituzten hautespen-baldintzetan zehaztea. Hirugarrenak, enpresen arteko harremanaren eskakizuna azpimarratzearekin batera, lurralde-ordezkaritza demokratikoan parte hartzearen arazoa produkzio-programen elaborazioarekin harremanean jartzen du.

Argibide horiek nahiko erabilgarriak dira, eta oinarriko esperientzien emaitza dira. Esperientzia horiei beste batzuk gehitzen zaizkie: horietako bakoitza eztabaidatu eta sakondu egin behar da, kontuan hartuta, azken batean, aplikazio eta azterketa eremua fabrika dela, eta froga-bankurik onena borroka bateratua dela.

Langileen kontrolaren arazoari buruzko argibideak: eztabaida bat L 'Unita-rekin

[…] ez dugu inoiz eutsi, eta haur-mailakoa izango litzateke hori eustea, langileek erregimen kapitalistaren esparruan patroiarekin ekoizpenaren zuzendaritza berdintasunean partekatu ahal izatea. Hori patroiak ezin du eman patroi den bitartean: are gutxiago patroi monopolistak. Era berean, ez dugu pentsatzen legebiltzarrak kontrola ezartzeko legeak jaulki ditzakeenik, legebiltzarra monopolioaren hegemoniaren klase harremanen ispilua baita.

Erdiko puntua bestelakoa da. Fabrikan, ugazaben boterea indartzeko funtsezko oinarria den horretan, langileak ekoizpen-prozesuarekiko erabat arrotz iraun duen egoera dago, zeinetik ez duen ezer ezagutzen, bere zeregin espezifikoa den milako frakzio hura izan ezik. Horrela, bere nortasuna erabat husten da, eta hortik, astotze substantzial baten bidez, lanaren antolaketa modernoak inposatutako neke muskular eta nerbioso izugarri baten ekarpen pasiboa baino ez da geratzen. Egoera horretatik ateratzeko, langileek fabrika bere osotasunean ezagutzen ikasi behar dute, patroi bihurtu behar dute, gutxienez ezagutzaren eta ekoizpen-prozesuaren mekanismoaren planoan […]